

ESKERRIK ASKO, MARTIN!

Doinua: Iparragirre abila dela"

1

Pozgarria da mundu honetan
adiskide izatea,
ezin inundik inora eten
maitasunezko katea.
Gure hartuemona
samurra ta sakona
maitasun beroz betea.
Guztion partez eskerrik asko,
Martin abade maitea!

2

Zure barruti maitagarria:
Laukiz, Maruri, Gatika,
Meñaka, Fruiz, Gamiz, Larrauri,
Arrieta eta Fika.
Benetako artzaina,
zuk bai ardi-usaina...
hara ta hona korrika.
Gure partez ta eskuzabalez
Jaunak zaizala bedeinka.

3

Emonak emon hainbeste urtez
ahal dan ondoen eginez,
azken batean gelditu behar
gehiago emon ezinez.
Eskerrik asko, Martin,
herri guztiak bardin
bertsoz eta txalo finez.
Batera pozik ta penaz gagoz
zukanako maiteminez.

4

Zeuk erakutsi deuskuzu, Martin,
zelan bizi behar dogun,
zintzo ta zuzen alkarlanean
jaiegun eta astegun.
Gu bizi garan arte
zu gure bizi-parte,
horra zenbat zor deutsugun.
Zure antzera izan nahi dogu:
Euskaldun eta Fededun.

A. Martzel